

Condiciones laborales dignas=Sanidad pública de calidad

Lan-baldintza duinak=kalitatezko osasun publikoa

LAB, SATSE, SAE, UGT, Afapna, ELA eta CCOO sindikatuek uste dugu pairatzen ari garen pandemia egoerak agerian utzi dituela Nafarroako osasun sisteman dauden egiturazko gabeziak. Testuinguru horrek gure indarrak batu eta aldarrikapen hauek batera adostera eraman gaitu:

1.- Osasun publikorako aurrekontu-partida bat, gutxienez Europar Batasuneko batez bestekoarekin parekatuko dena: BPGren % 10 inguru, eta osasun-aurrekontuaren % 25, gutxienez, lehen mailako arretara bideratuko da.

2.-Enpleguaren arloan:

- Lanpostu guztietako lan- eta ekonomia-baldintzak hobetzea.
- Plantilla handitzea: kontratazio handiagoa egin behar da, gaur egun Covid-19ren ondorioz sortutako beharrei erantzuteko ez ezik, egiturazko beharrei erantzuteko ere (egungo plantilla gutxiegiakoa da), bai plaza finkatuetan bai egiturazkoetan. Kudeaketari esleitutako antolamendu-egitura eta eduki funtzionalak berrikustea, batez ere plantillari dagokionez.
- Behin-behineko langileak finkatzea aldizkako lan-eskaintza publikoak eginez, plantilla egonkortu eta profesionalen ihesa saihesteko: langileen erdiak baino gehiago aldi baterakoak dira. Eskasia eta behin-behinekotasun handiagoa duten sektore-estamentuak lehenestea. Benetako beharretan eta egungo COVID bezalako gorabeheren aurreikuspenean oinarritutako finkapena. Aldi baterako kontratuak murriztea gehienez plantillaren % 8 izan daitezten. Plaza guztiak % 100era eramatea.
- Lanaldia % 100era igotzea (borondatez eskatzen diren murrizketetan izan ezik) eta kontratu partzialak kentzea.

- Lanpostu bakoitzaren prestakuntza-mailaren, emandako denboraren eta erantzukizun-mailaren aintzatespen eta konpentsazio proportzionala, estamentu guztientzat.

3.- Murrizketa guztiak baliogabetzea: galdutako erosteko ahalmena berreskuratu behar da. Era berean, 2010eko krisiaren aurreko estamentuen araberako soldaten proportzionaltasun-indizeak berreskuratzea.

4.- Estamentu guztietarako karrera profesionala aitortzea eta lehendik daudenak egokitzea.

5.- Titulazioen araberako lanbide-mailen kokapenak berrikustea.

6.- Gutxienez % 10eko arrisku-osagarria esposiziopeko langile guztientzat.

7.- Osasun Publikoaren defentsa eta ahalik eta gehien indartzea. Osasun publiko hau garatzen duten prozesu guztiak lehentasunez abiaraztea. Privatizatutako zerbitzu guztiak itzultzea publikatzea.

8.- Lehen mailako arreta premiaz garatzea eta berrantolatzea, Osasun Sistemaren oinarri gisa, plantillak eta haien jarduerak egungo premien araberako irizpideekin dimentsionatuz.

9.- Laneko arriskuen prebentzio arloan:

- Langile guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurriak, bai koronabirusaren agerraldien aurrean, bai eguneroko lanean.
- Langile guztiak beren lanpostuetan babesteko baliabide eta neurri zehatzak, nahikoak eta egokiak jartzea.
- Asistentzia-maila guztietako lan-arriskuak baloratzea eta kategoria guztietarako prebentzio- eta babes-neurriak hartzea, inolako bereizketarik egin gabe.

- Arrisku psikosozialak ebaluatzea, lan-kargen ondoriozkoak barne, eta neurri zuzentzaileak hartzea kategoría guztietarako, inolako bereizketarik egin gabe.
- Azken batean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika proaktiboak garatzea, hainbat arazo hautemateko dinamizazioarekin (kutsatzeak, gainkarga, pertsonen arteko gatazkak...), bai eta dagozkion txostenak egiteko eta gerentziek eguneroko lan-jardueratik eratorritako arriskuak prebenitzeko, babesteko eta zuzentzeko neurriak abian jartzeko ere.

10.- "Alarma-egoera" ez erabiltzea aitzakiazat langileen lan-baldintzak desarautzeko, okerragotzeko eta prekarizatzeko: lanaldiak, txandak, eremu-aldaketak eta abar malgutzeak, nolahi ere, puntualak eta salbuespenezkoak izan behar dira (une honetan ohitura bihurtu dira), negoziatuak eta adostuak. Gaur egun, hartutako neurrietako bat bera ere ez da negoziatu.

11.- Edozein lanpostutan jarduteko eskatzen diren titulazioak ez aldatzea.

12.- Sindikatuetao ordezkarien eta profesionalen kudeatzaileen eta zuzendaritzen artean bi norabideko informazio-kanal azkarrak lortzeko lan egitea.

13.- Benetako negoziazioa Osasuneko Mahai Sektorialetik. Hitzartutako Aldizkakotasuna hitzartu eta, gainera, Osasuneko Mahai Sektoriala egitea beharrezkoa ikusten denean.

